

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

68/2021 Foru Agindua, martxoaren 24koa. Behin betiko onespena ematea zenbait baldintzarekin Donemiliagako udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen bigarren aldaketa puntualari, Zuhatzu Donemiliagako 1 poligonoko 284 eta 286 lurzatietakoa lerrokadurei buruzkoa

2020ko martxoaren 11ko osoko bilkuran, Donemiliagako Udalak hasiera batean onetsi zuen Plangintzako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa puntuala, Zuhatzu Donemiliagako 1 poligonoko 284 eta 286 lurzatietakoa lerrokadurak aldatzeko buruzkoa, eta hilabeteko epean jendaurrean jartzea erabaki zuen. Horretarako, dagozkion iragarkiak jarri ziren ALHAOko 36. zenbakian, 2020ko martxoaren 27koan, eta "El Correo" egunkarian, 2020ko ekainaren 4koan. Era berean, hasierako onespena jakinarazi zitzaion udalerriko administrazio batzarrei.

Jendaurrean egoteko epean ez zen inongo alegaziorik aurkeztu, eta Udalak, 2020ko urriaren 14ko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion espedienteari.

Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuko espedientearen izapidetu da, eta irailaren 9ko 201/2020 Foru Agindua eman da, "Donemiliagako (Zuhatzu Donemiliaga) udalerriko Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa puntuala xedatzen duena. Aipatutako Foru Aginduan ingurumen baldintza bat ezartzen zen hirigintza agirian sartzeko, eta baldintza hori behar bezala helarazi da.

Donemiliagako Udalak espediente osoa bidali zuen, behin betiko onetsia izan zedin. Espediente hori 2021eko urtarrilaren 27an sartu zen AFaren Erregistro Orokorrean.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatzea dagokie:

Lehenengoa. Espediente hori partikular batek eskatu du eta Donemiliagako Udalak izapidetu du, eta espedientearen xedea da Zuhatzu Donemiliagako 1 poligonoko 284 eta 286 lurzatiaren arteko bide lerrokadurak aldatzea.

Zehazki, bide lerrokadura bat etorriko litzateke 1-286 lurzatiaren mugaketarekin. Adierazitako lurzatiarekiko lerrokadura aldatzeak Arco kalea murriztea ekarriko luke; beraz, gaur egun indarrean dagoen araudiak aurreikusitako zabalerari eusteko, bidearen beste aldearekiko lerrokadura 1-284 lurzatiaren barrualderantz mugitu beharko litzateke.

Bigarrena. Horretarako, udal plangintzako arau subsidiarioak aldatu behar dira – abenduaren 2ko 665/2009 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren behin betiko, eta 2013ko abenduaren 2ko 138 zenbakiko ALHAOn argitaratu zenean sartu ziren indarrean –, eta aldaketa horrek aipatutako arauen zati grafikoari, planoari, baino ez dio eragiten.

Hirugarrena. Aldaketa hau honakoek justifikatzen dute:

1. Txostenaren xede diren lurzatiak egituratzen dituen bidearen trazadura hobetzea; izan ere, lehendik dagoen hormaren eta 1-286 errepidean eraiki beharko litzatekeenaren arteko haustura saihestuko litzateke, indarrean dagoen lerrokadurara egokituta.

2. 286 lurzatiaren dagoen eraikin bat birgaitzeko baimena ematea, hormetako bat eraitsi edo atzera eraman behar izan gabe.

Laugarrena. Donemiliagako udalerriko hirigintza plangintzaren eta legeria aplikagarriaren arabera, agiria behin azterturik, zuzendu behar diren zenbait alderdi antzeman dira. Alderdi horiek hurrengo ataletan zehazten dira:

1. Aldaketak ez dio eragiten 1-287 lurzatiari; beraz, aldaketaren idazketa inguruabar horretara egokituko da.

2. Planoak Donemiliagan indarrean dagoen plangintzako arau subsidiarioen dokumentuari dagozkion jatorrizkoen eskala berean eta eduki berarekin aurkeztuko dira. Horietan argi eta garbi adieraziko dira egungoak direnak eta aldatuak.

3. Lerrokadurak hiri lurzorura mugatuko dira; beraz, ezin izango dira lurzoru mota horretatik harago grafiatu, eta planoak zentzu horretan zuzendu beharko dira.

4. Aldaketaren dokumentu teknikoak, lurzoru urbanizaezinean "lerrokadura" gisa grafiatutako lerro horiekin, hiri lurzorutik urbanizaezinerara igarotzean bidearen sekzioa murriztea saihestu nahi zuen, kale osoan sekzio konstantea mantenduz. Hala ere, hori lortzeko hirigintza prozedura egokia da sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketa bat mugatzea (ELLaren 139. art.). Prozedura hori beharrezkoa da, batetik, Arco kalearen luzera osoan zabalera uniformea bermatzeko eta, horrela, haren trazadura eta bideragarritasuna hobetzeko, eta, bestetik, A-3022 bide sistema orokorrarekiko lotura egokia bermatzeko (1-284 lurzatiko hiri lurzoruaren eta lurzoru urbanizaezinen zatia barne hartuta), Errepideen Zerbitzuak 2021eko martxoaren 10ean egindako txostenean grafikoki adierazitakoarekin bat etorritik.

Zuzkidura publikoa egikaritzeko jarduketa horren ebaluazio ekonomikoa bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioaren azterlanean eta jasagarritasun ekonomikoari buruzko memorian islatuko da, eta hura gauzatzeko denborak, berriz, egikaritzearen antolamendu eta kudeaketa jarraibideen azterketan (etapen plana).

5. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, txosten honetan adierazitako baldintzak betetzen dituen dokumentazio guztia berriro aurkeztuko da, bai fitxategi editaezinetan, bai artxibo editagarrietan.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea Donemiliagako udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen bigarren aldaketa puntualaren espedientea, Zuhatsu Donemiliagako 1 poligonoko 284 eta 286 lurzatietako lerrokadurei buruzkoa, ebazpen honen laugarren oinarrian adierazitako baldintzekin.

Bigarrena. Baldintza horiek ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri beharrik gabe, betearazi beharrezkoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2021eko martxoaren 24a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO